

2017ko JARDUEREN TXOSTENA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural

AURKIBIDEA

1.-ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN PLANA 2017 -2020

•Bulegoa Plana garatzen hasi da "Elkarbizitzarako eta Kulturartekotasun plana 2017-2020"

2. SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZEN- TZIAZIOA

- ♦ Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna. Martxoak 21
- ♦ Ijito Herriaren nazioarteko eguna. Apiril. 8
- ♦ Errefuxiatuen Mundu-eguna. Ekainak 20
- ♦ Haurren egun unibertsala. Azaroak 20
- ♦ **ZURRUMURRUEN AURKAKO FORMAZIOA**
- ♦ Herritarrei zuzendua.

- ♦ **ERAKUSKETAK**
- ♦ "Errefuxiatuak, Ongi etorri"

3. BIZIKIDETZA ETA HERRITAREN PARTE HARTZEA

- Sukaldanitzak
- Emakumeen gune interkulturala
- Kultura arteko bizikidetza ikastetxean
"Ongi etorri eskolara"

4. SAREETAN PARTE HARTZEA

- Kultur aniztasuneko eragileen sarea.
- Elkarbizi sarea/Foru Aldundia.
- "ZAS" zurrumurruen aurkako sarea.
- RECI Kulturen arteko hirien sarea.
- ICC Intercultural Citis

5. DIRU- LAGUNTZAK

Baterako diru-laguntzak
Zuzeneko diru-laguntzak

ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN PLANA

2017 -2020



**ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN
PLANA 2017 - 2020**

Iaz, 2016. urtean Donostiako Udalak, Kultur aniztasunaren bulegoak eta Emun kooperatibak "elkarbizitza eta Kulturartekotasun Plana 2017-2020" diseinatu eta martxan prozesua abian jarri zuten. Ondorengo atalekin banakako bilerak egin zituzten; Euskara, Berdintasuna Gaztedia, Donostia Sustapena, Donostia Kultura-Festak, San Telmo Museoa, Partaidetza, Udaltzainaingoa eta Gizarte Ongi izatea. Bilera horietan, bulegoaren lana aurkeztu, informazioa jaso eta bulego bakoitzeko solaskide bat izendatu zen.

Aurten, Bulegoarekin lan egiten dituzten elkarteekin harremanetan jarri gara eta beraien ekarpenak jaso ditugu.

Kurtso honetan, Emun kooperatibak, bere lana amaitu du eta momentu honetan "Elkarbizitza eta Kulturartekotasun Plana 2017-2020" berrikusketa prozesuan aurkitzen da.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Martxoak 21

Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna

Donostiako Udalak eta hiriko hainbat eragilek eta elkartek, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta egitarau baratera osatu dute.

Martxoaren 15tik- 30ra bitartean hainbat ekintza burutu ziren, besteak beste: emanaldiak, jardunaldiak, zuhaitz landaketak eta arrazakeriaren aurkako martxa. Horrez aparte, Giza Liburutegietako saio berezia egin zen, San Telmo Museoa.

Egitarau bateratuaren antolaketan parte hartu zuten: SOS Arrazakeria, Kolore Guztiak, Kaebnai, "Ongi etorri eskolara " Euskadiko GGKEn Koordinakundea, Medicus Mundi, Fundación Secretariado, San Telmo Museoa, Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren Bulegoa eta + 55,



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Giza Liburutegia 2017: “Pertsona bat, liburu bat”

Elkarrizketa gurutzatuak kulturartekotasuna bultzatzeko

Martxoaren 21ean, Xenofobia eta Arrazakeriaren Kontrako Nazioarteko egunean, Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren Bulegoak eta + 55 hainbat elkarterekin batera, Giza Liburutegi ekimena antolatu zuten San Telmo Liburutegian. Kultura desberdinekin lotutako bost pertsona liburu bihurtu ziren haien istorio eta bizipenak partekatzeko.

Bigarren urtea da San Telmo museoan antolatzen dela, eta aurrean 5 gunetan oinarritutako dinamika batean garatu da. Gune bakoitzaren ardura jatorri eta kultura anitzeko elkarte batek parte hartu du, eta hizlariak kultura jakin bati buruzko istorio edo bizipenak azaldu dizkiete parte hartzaileei.

Honako talde eta elkarteek hartu dute parte aurtengo edizioan: Atisha Tibetar Kultur Elkarte, Haurralde fundazioa, Jatorkin, Kamelamos Adiquerar, Ongi Etorri Eskolara.

Ekimenean, hogeita hamar lagun parte hartu dute eta modu onean baloratu dute jarduerak.

GIZA LIBURUTEGIA

Pertsona bakoitza liburu bat da

Elor zaitez kultura eta bizipen desberdinak ezagutzera.

LIBURUAK: "Jampa Zopa, libelar preso", "Fang Kultura, Ekuatore Ginea", "Tango-Luntard, ametsak eta ibaropenak", "Bidegurutzan bizi", "Zanpatzaileen aurkako matxinada"

Ordua: 17:30
Lekua: San Telmo Museoa (Liburutegia)

**MARTXOAK 21
21 DE MARZO**

Jatorri desberdineko parte hartzen duten elkarteak:
Atikaeuskadi, Atisha Tibetar Kultur Elkarte, Haurralde Fundazioa, Jatorkin, Kamelamos Adiquerar.

donostia.kultura 55 Kultur Aniztasunaren Bulegoa STM San Telmo Museoa

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Apirilak 8

Ijito Herriaren nazioarteko eguna



Joan den martxoaren 30eko osoko bilkuran, udal talde guztiek, erakunde adierazpen bat babestu zuten, ondoko konpromisoa onartuz: " Giza eskubideak eta printzipio demokratikoak babestea, eta ijito herriaren eta herri ibiltarien aurkako edozer diskriminazioa baztertzea"

Aurreko urtetan bezala hilaren 7an, (apirilak 8, larunbata izanik) Ijito Herriari omenaldia egiteko hainbat ekintza burutu ziren, Donostiako Udaletxean.

Goizeko 11:00etan, Udaletxeko Udalbatza aretoan, harrera ekitaldi bat egon zen, ongi etorri egiteko honako elkarte hauei: Agifugi, Cáritas, Kamelamos Adiquerar, Romi bidean eta Secreariado gitano fundazioari. Beraiek komunikatua irakurri zuten eta banderak elkar trukatu zuten (Donostiako hirikoa eta ijito herriarena), bukatzeko Gelem Gelem Ijitoen ereserkia kantatu zuten.

Udalbatza Aretoan ekitaldi horiek amaitu ondoren, Ibaiaren Zeremonia, Kaian, ospatu zuten , hartan, lore hostoak botatzen dira uretara, kandelak pizten diren bitartean, arbasoekiko omenaldi gisa eta "nazien holokaustoan" izandako heriotzak gogora ekartzeko.

Ijito bandera Udaletxeko balkoian egon zen eta Dbus autobusetan ere ikusi ahal izan zen egun osoan.

Amaitzeko,Udalbatza Aretoan, hamaiketako bat egon zen.

ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN PLANA

Sukaldanitzak

Maitzak 13

“Sukaldanitzak” ekimenak, gastronomiaren bidez kulturek elkar ezagutzea sustatzen du, hala, hainbat jatorrizko pertsonak elkar topatzeko guneak sortuz.

Beste kultura batzuen gastronomiari hurbiltzeko aukera ematen du “Sukaldanitzak” ekimenak. Aurten, Donostiako 9 Elkarte Gastronomikoetan, tailerrak eman ziren eta horietako bakoitzean, tokian tokiko ohiko errezetak prestatu ziren. toki bakoitzeko sukaldari batek irakatsita. Ondoren bertara inguratu zirenak, (aldeaz aurretik, izena eman zuten hiritarrak, elkarteetako bazkideak..) aukera izan zuten bazkarian parte hartzeko.



*Inglaterrako Menua
Amaikak Bat / Mujeres del Mundo*



*Menu eslaviarra
Soc. Zubi Musu/ Asoc. iación
Vostok ekialde*



*Ukraniako Menua
Txirain /Asoc Ucrania Euskadi*



*Kongoko Menua
Loiolatarra Deport./Asoc. Afrika
Euskadi*



*Ekuadorreko Menua
Casa.Galicia/ Asoc.
Esperanza Latina*



*Romani Menua
Centro Burgalés/As.
Camelamos Adiguera*



*Marokoko Menua
Soc. Kañoyetan/ Jatorkin*



*Bolibiako Menua
Esperanza CD./AS.
Asoc. Mi Nuevo Potosi*



*Mexikoko Menua
Vasconia CD/ Asoc. Mesitza*

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Pertsona Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

Erakusketa: “ Errefuxiatuak, ongi etorri!”

Ekainak 20

Ekainaren 20an errefuxiatuen Mundu Eguna dela-eta, Kultur aniztasunaren bulegoak, SOS arrazakeriarekin batera, erakusketa bat antolatu zuen. Europa eta munduko zenbait herrik pairatzen dituzten errefuxiatuen krisiaren alderdi nagusiak ezagutzera emateko.

“Errefuxiatuak, ongi Etorri” erakusketaren helburuak: i Siriako krisia sortu dituzten arrazoieng inguruan eta pertsona errefuxiatuek egun bizi dituzten egoeren inguruan informazioa ematea izan da.

Horrez gain gertatzen ari diren beste hainbat gatazka eta herritarren lekualdatzeak ezagutzera ematen ditu.

Hamazazpi panelen zehar, krisialdien arrazoi eta ezaugarriei buruz hausnartzeko aukera eman du.

Erakusketa hau herritar guztiei irekita egon da ekainaren 15etik 25era, Aieteko Kultur Etxean. Beste aldetik 7 bisita gidatuak antolatu ziren, Tarana Karim, eskutik (SOS arrazakeria) DBHko ikasleei zuzenduak bertan, 200 ikasle parte hartu zuten.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Azaroak 20

Haurren Egun Unibertsala

Donostiako Kultur aniztasunaren Bulegoak, Mestiza elkartearekin elkarlanean "Haurren Egun Unibertsalaren Festa" antolatu zuen, azaroaren 10ean, Altzako Kultur Etxean, Tomasene aretoan, ekitaldia, 4- 8 urteko haurrei zuzendua izan zen.

Ekitaldiaren ardatzak, Kulturaren arteko harremanak eta bizikidetza bultzatzea izan da eta Aniztasuna balorean jartzea.

Parte-hartzaileak;

Monica Gracia (Donostia irratia) aurkezle moduan aritu zen.

Ipui Kontalaria Lázaro Olivenza (Abracadabra), Elmer elefantearen Ipuiaren kontakizunaren bitartez aniztasuna balorean ipini zuen.


Jokoak eta abestiak hiru hizkuntzetan, Ana Molina (Mestiza elkarte) eta Miss Josin, aritu dira.

Aniztasun Muralaren sormena, haurrek osatu zuten, Mónica Luna Arriola gidaripean.

Festa alaitzeko " Musika naiz" entzuteko eta dantzan aritzeko aukera izan dute, eta "Sweet Lulu" gozotegiko goxoak dastatzeko.

Altzako Tomasene Kultur etxeko aretoa bete egin zen.

Jokuak eta bizikidetza elkar lotuz arratsalde giro ederrean igaro zuten.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Udalak antolatu ditu hainbat ekitaldi Haurren Egun Unibertsala dela eta



Haurren Egun Unibertsalaren harira, Azaroaren 18an, larunbata, Dar- Dar gizarte ekimenezko kooperatibak, festa giroan naturaz eta aniztasunaz gozatzeko, "HAREA" ikuskizuna antzeztu zuen.

Antzezlan honetan, haurren eskubideak, naturarako eskubidea eta aniztasunaren kontzeptuak uztartu dira.

Antzezlan burutu ondoren Aieteko parkean hiru ekimen burutu zituzten; Zuhaitzek duten garrantziari buruz hitz egin zuten. "Gaztainondo"aren jatorria eta erabilera euskal munduan adierazi ziguten, ondoren Txorien bizimoduan oinarrituta pertsonen migrazioaz hitz egin zuten eta bukatzeko Wangariren erakusketa gidatua egin zuten.

Ikuskizuna, Familiei zuzendua izan zen. Sarrerek segituan bukatu ziren, ekimenean 150 pertsona parte hartu zuten, eta giro onean igaro zuten arratsaldea. Antzezlan eta ekimenak, Aieteko Kultur etxean eta parkean burutu ziren.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

“Zurrumurruen aurkako prestakuntza”

Donostiako herritarrei eta elkarteei zuzendua

Urriak 16, 17, 18, 25

Zurrumurruen Aurkako Estrategia, etorkin, errefuxiatu eta oro har, kultur aniztasunaren aurkako estereotipo negatibo edota aurreiritziek sortutako ondorioak indargabetzeko dinamika da.

Kultur Aniztasunaren Bulegoak, SOS arrazakeriarekin elkartearekin elkarlanean, “Zurrumurruen aurkako” prestakuntza saio batzuk antolatu dituzte, Donostiako herritarrei zuzenduak.

Formakuntzako saioak Aieteko Jauregian eman dira, lau saiotan banatuta:

Urriaren 16,18,23 eta 25ean (lau saio orotara)

Arratsaldeko 17:30tatik 20:30tara

EGITARAUA:

1. saioa: Kulturak eta identitateak: aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumurruak. Xabier Aierdi [UPV-EHU]

2. saioa: Zurrumurruen kudeaketarako estrategia komunikatibo eta emozionalak. Raquel Moreno [Xarxa antiRumors Barcelona]

3. saioa: Zurrumurruen aurkako erantzunak. Agustin Unzurrunzaga [SOS Arrazakeria]

4. saioa: Donostiako zurrumurruen aurkako agenteen sareataz hitz egiten hastea. [Zurrumurruen Aurkako Sarea]

Ondoko formazio egitasmoak, besteak beste, zurrumurruen aurka lanean arituko den pertsona ezberdinez osatutako Donostiako agenteen sarea sortzea izan du helburu nagusia, bertan 33 pertsonak parte hartu dute.



BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Kultura arteko Bizikidetza Eskola Komunitatean “Ongi etorri eskolara”

Kultur Aniztasunaren bulegoak, “ONGI ETORRI ESKOLARA” egitasmoa, Donostiako Hiriko sei Ikastetxetan martxan jarri du; Aitor ikastola eta M^o Reina, Egia Auzoan Intxaurrondo Hegoa ikastola eta Intxaurrondo ikastola, Intxaurrondo Auzoan, Zuhaizti ikastetxea, Gros auzoan eta Amara Berri eskola publikoa, Amaran.

Egitasmo honen helburua; beste herrialde batzuetatik datozen familiei, eskolako eta hiriko martxan laguntzea da, eta era berean eskolako eragile guztiak Kutur Aniztasunaren abantailaz jabetzea.

Honen barnean, esanguratsuenen artean daukagu “Familia Laguna” programa, Donostian finkatutako familia boluntarioek eta etorri berriak diren familiak harremanetan eta elkarlanean aritzeko programa, informazioa partekatuz eta elkarbizitza bultzatuz. Jatorri desberdinetako familiek oso iritzi baikorra daukate egitasmoarekiko: ikastetxeko zein auzoko harremanak zabaldu dituzte.

Haien jatorrizko kultura balioan jartzea oso modu onean hartzen dute, eta hemengo kulturarekiko interesa modu nabarian handitu dute.

Museo San Telmorekin elkarlanean ere, programa honetan parte hartzen duten familiekin bisita gidatuak antolatu dira, eta Donostiako Aquariuma ere bisitatzeko aukera izan dute.



SAREETAN PARTE HARTZEA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Foru Aldundiak egin duen plana aurkeztu digute: "Aniztasunean Bizikideratzako foru Plana" Aldundiak egin duen Plana landu dugu. Udal bakoitzak, bere ekarpenak egin ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bilera desberdinak antolatu ditu, hainbat udaletxeetan egiten diren esperientziak partekatzeko helburuarekin.

Antolatutako "World kafe"an parte hartu genuen, bertan diskriminazio eza bultzatzeko hainbat ekintzatzat hitz egin zen. Bilera hauetan, diharduten udal arduradunen artean; ezagutza, elkarlana eta sinergiak sustatzeko asmoak, helburua dute.

Beste aldetik Elkarbizi Sarea bultzatzeko bilera desberdinak egin dira, landu diren gaiak; proiektu elkartuak, udaletxeetan nola landu dezakegun zehar-lerrotasuna.

Eragileen Sarea

Eragileen Sarea, Udalaren eta pertsona migratzaileei laguntzen dieten elkarteek arteko solas gunea da. Bere ibilbidea 2014. urtean hasi zuen. Bertan zinegotziak, kultur aniztasuneko teknikoa eta elkarteek parte hartzen dute. Kurtso honetan bi bilera egin dira. Bat bulegoko planaren zirriborroa aurkezteko eta bestea uztailan, bulegoak sustatzen dituen proiektuak aurkezteko eta beraien ekarpenak jasotzeko, azkenengo honetan, hamalau elkarte parte hartu zuten.

Jabetze taldeak


EMAKUMEEN GUNE INTERKUTURALA

Donostiako Kultur Aniztasunaren Bulegoak eta Berdintasun Sailak elkarlanean, jatorri desberdineko emakumeentzat taldean egoteko gunea eskaintzen die eta bertan asteen behin, beraien ahalgunduko prozesua laguntzeko ekimena sustatu eta koordinatzen dute. Sorburu kooperatibaren esku dago, egitasmoaren dinamizazioa.

Asteartero, gune honetan parte hartu nahi duten jatorri desberdinetako emakumeek, hitzordua daukate 16:00etatik 18:00etara

- 2017an; 26 saio egin dira, eta partaideen bizipen propioetatik abiatuta, migrazioak nola bizi dituzten aztertu izan dute elkarrekin. Hiriak dituen errekurtsoen informazioa jaso dute. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta Donostian gehiago sustraitzeko tresna baliabideak landu dituzte, eta gizartean parte aktiboa hartzea animatzen dituzte.

Beraien balorazioa ona izan da, 137 asistentzi egon dira eta gune honetan esperientziak beste emakume batzuekin, konpartitu dituzte, San Telmoko "tierras devastadas" erakusketa ikusi dute, leku berriak ezagutu eta gai desberdinak landu dituzte (genero indarkeria, emakumeen eskubideak, errefuxiatuak...). Egitasmo honek, ekintzetan parte hartu duten emakumeei, laguntza eta arlo desberdinetan informazioa eman die.



SAREETAN PARTE HARTZEA

ICC. Intercultural Cities

Donostia, Europako Kontseiluko Kulturen arteko hirien sare eta programako kide da 2011.urteaz geroztik, eta egun, beste 100 hirik parte hartzen dute bertan. Programa horrek hiriak laguntzen ditu haien kulturarteko estrategiak garatzen, aniztasunaren kudeaketa eta migratzaile integrazioa bideratuz.

2017. urtean zehar Donostiako Udalak, Europako Batzordearen ICC programaren, Koordinazio bilera batzuetan parte hartu du, Kultur Aniztasunaren sailaren bidez.

OSLO.- 2017ko ekainaren 14-15ean

Ekitaldiaren helburu orokorra izan da: Giza eskubideak nola landu Kultura arteko Hirien Sarean. Mintegi honetan, 15 herrialdeek parte hartu dute.

LISBOA.- 2017 azaroko azken astean

Aurten 10 urte bete dira IIC, Intercultural Cities sortu zen ezkeror. "2007- 2017 Ten years making diversity work for Cities".

ICC. Intercultural Cities, Data hau ospatzeko, Lisboan, mintegi ugari egon dira, gai desberdinez osatuak: Giza eskubideak, zurrumurruen aurkako mintegiak...

Bertan Donostiako Kultur aniztasunaren bulegoak, parte hartu zuen.

SAREETAN PARTE HARTZEA

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak, hainbat eragile sozial eta Instituzionalek osaturiko sarea da. Donostiako udala beste 30 udalekin, parte hartzen du sare honetan.

Sareak, martxoan 21ean eta azaroaren 7an, antolatu zituzten bileretan, Kultur aniztasunaren bulegoak, parte hartu zuen.

Martxoan 21ean Donostian: Hitz egin ziren gaien artean: Estatutoak, deklarazioa, xenofobia.. Eta horren harira, "ZAS" sareak, martxoaren 21ean, arrazakeriaren eta Xenofobiaren kontrako Nazioarteko eguna dela eta prentsa ohar bat publikatu zuen, sarearen konpromisoa adieraziz.

"ZAS" sareak, aurten antolatu dituzten besteen ekintzen artean; Formakuntza saioak antolatu dituzte, "Trebatazaileak trebatzen", Bilbon, Donostian eta Gazteizen. Zurrumurruen aurkako estrategiaren inguruko trebatazaileak prestatzeko eta birgaitzeko gune bat eskaintzen du, gaitasunak eta ezagutzak eskuratzeko, alde batetik, eta Zurrumurruen Aurkako ZAS! zigiluaren barruan herritarren sareak sortzeko, bestetik. Programan parte hartu ahal izan dute ZAS! Sarea osatzen duten erakundeetako kideek; udalerri, erakunde eta beste entitate batzuetan zurrumurruen aurkako estrategia abiatu duten pertsonak; eta zurrumurruen aurkako estrategia lantzen duten edo estrategia horretan interesa duten administrazioako teknikariek.

Urtea amaitzeko "ZAS" sareak, Donostiako Antzoki Zaharrean Bertso Saio bat antolatu zuen, "Zurrumurruen aurkako gaiarekin"

Pertsona etorkinei buruzko zurrumurru oinarri gabeek; estereotipo ezkorrek eta aurreiritziek intolerantziaren diskurtsoa elikatzen dute, eta luzaroan ezin haztegi hobea dira desberdintasuna, gizarte zatiketa eta diskriminazioa egiteko. Abenduaren 28an ZAS! Zurrumurruen aurkako sareak bertso-saioa antolatu zuen zurrumurruen aurre egiteko

SAREETAN PARTE HARTZEA

RECI-Kultura Arteko Hirien Sarea

Sare honen helburuetako bat da esperientziak partekatzea eta aniztasuna kudeatzeko moduak ezagutaraztea, kulturarteko ikuspegia txertatuz. Izan ere, jatorri eta kultura askotariko pertsonen arteko ezagutza ahalbideratzea du helburu; beldurrak alde batera utzi, eta ondorioz diskriminazioa ezabatzea zergatia edozein dela ere, eta aniztasunaren balio positiboa goraipatzea. RECI, estatuko sare maila da.



MADRILEN.- RECI- Kulturarteko hirien sareko bileran parte hartu zuen Donostiako kultur aniztasunaren bulegoak, martxoaren 29 eta 30ean, estatuko beste 14 hiri eta Tenerifeko kabildoarekin batera.

RECIK aurten Diversity Advantage edo Aniztasunaren Abantaila saria bultzatu du, eta bertan hiriko zerbitzu zein egitekoetan jatorri eta kultura askotariko herritarrek onurak eta berrikuntza elkar diezazkigutela- aldagai neurgarrien bitartez- erakutsi duten ekimenak identifikatu, eta saritu dituzte.

Hogei proiektutik gora aurkeztu ziren orotara, eta 4 proiektu izan ziren irabazleak; Fuenlabradako Udaltzaingoa, MOB empresa Bartzelonako proiektu berritzaileen sortzaileak, L'Hospitaletako eskola multikulturala, eta Logroñoko Hiri-joeren eskola.

Donostiako Udalak oso emaitza onak izaten ari diren bi proiektu aurkeztu zituen, hain zuzen, SOS Arrazakeriak bultzatzen duen Bizilagunak proiektua, eta bestetik Elkarrekin Koop Txikiak eta Udalak elkarlanean kudeatzen duten Ongi Etorri ikastolara proiektua.

GETXO/RECI.- Getxon antolatu ziren Zurrumurruen aurkako formakuntza saioetan Gaztediako bulegoarekin elkarlanean Donostiako Kultur aniztasunaren bulegoak parte hartu zuen. Saio hauek gazteei zuzenduak izan ziren. Donostiatik, formakuntza saio hauetan, 4 gazte parte hartu zuten

<https://www.youtube.com/watch?v=eMT1f2Elu8Q>

SAREETAN PARTE HARTZEA

Erlijioen arteko Donostiako elkarrizketa mahaia

Mahai hau Baitara Baita programaren segida da, zeina 2016an sortu baitzen, Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburutzarako prestaturiko proiektuaren barruan.

Udalerriko erlijioen errealitatea ezagutzea du helburu programak, administrazio publikoek elkarrizketan jardutea erlijio sinetsbideekin eta erlijio aniztasuna kudeatzea.

Gutxienez, lurraldean diren 8 sinetsbideren ordezkari izango dira partaide.

2017an, birritan elkartu zen mahaia, besteak beste, ondoko gaiak jorratzera: sinetsbide guztiek erabiltzeko moduko elkartzeko eta gurtzeko leku bat eskatzea, komunitateen arteko baterako programa bat egitea eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza planaren zirriborroa aztertzea, erlijio aitzakia darabilen nazioarteko terrorismoari aurre egitekoa.



DIRU-LAGUNTZAK

Kultur Aniztasuna, Elkar Ezagutza eta Aitortza

Baterako diru laguntzak

Kultur Aniztasunaren bulegoak guztira 53.000 euro banatu ditu, irabazi asmorik gabeko 22 erakunderen artean. Erakunde horiek, 24 proiektu aurkeztu dituzte, kultura aniztasunaren eta elkar ezagutzaren eta aitortzaren alde.

Zenbateko hori lortutako puntuazioaren arabera banatu da aurkeztutako 24 proiektuen artean.

Diru-laguntzen helburua da jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen artean elkar ezagutza eta aitortza bultzatzeko lanean diharduten gizarte eragileek bideratutako ekimenei eta proiektuei laguntzea.

Diruz lagundutako proiektuen asmoa da kultur aniztasuna, gizarte kohesioa eta elkarbizitza baketsua hedatzeko, sentsibilizatzeko, aintzat hartzeko eta defendatzeko jarduerak aurrera eramatea.

Zuzeneko diru-laguntzak

Diru laguntza zuzena 3 elkarteei banatu zaie, 5 proiektu finantzatzeko.

- . Helduak elkarteari, "Ikasle Errefuxiatuentzako eta talde baztertuentzako HIZ Udako ikastaroen kudeaketa " eta " Arreta osoa Donostia aldean kokatuta dauden iheslariei" ekimenak finantzatzeko
- . Gipuzkoako SOS.arrazakeria elkarteari, "Bizilagunak Gipuzkoa Solidarioa VIII" eta "Emakume musulmana islamofobiaren aurka borrokan" ekimenaren kudeaketa finantzatzeko.
- . Kamelamos Adiquerar elkarteari, "Donostiako Kante Flamenkoaren XVII. Flamenko/XVII Concurso de Cante Flamenco. Ekimena finantzatzeko.